

historias vascas



Lekeitio 700erako bideoa grabatzen, Isuntzan. Argazkiak: Lekeitioko Udala

ONDARE Batzordeko aktei begira, ikusi dut Lekeitio 700i buruzko lehen aipamena 2015eko azaroaren 20an burutu genuen batzarrekoa dela, orain 10 urtekoa beraz. Orduan, efemeride hain borobila eta aproposa aprobetxatu beharrari buruz ekin geuntson. Baina zer egin, zelan egin eta, garrantzitsuena, zertarako egin galderak geroago planteatu genituen. Orduan kontua mahai gainean jartzea zen, ez ahaztu edo bazterrean uztea. Zer, zelan eta zertarako galderoi erantzuna aurkitu baino lehen, Ondare Batzordean beste egitasmo bati heldu genion, 700. urteurrenarekin zerikusia zuen arren, berez ere munta zuena, *Kurik* aldizkariarenari.

Izan ere, Ondare Batzordea ondare kontuetan Udalarari aholkua emateko sortu zuen Lekeitioko Udalak, hau da batzordearen lana ez zen agintzea, iritzia ematea baino. Edozein modutan, batzordekideon asmoa zen gure herriak duen ondare kulturala zabaltzea. Horretarako sortu zen *Kurik*, horretarako eta urteetara etorriko zen zazpiehungarren mendeurrenaren inguruan egin zitezkeen hitzaldiak, erakusketak eta abarrek izan zezaten oinarri sendoa. Ze, Lekeitioko tradizioez eta historiari diharduten lanak eta liburuak badiren arren, sakabanatuta eta aspaldikoak dira gehienak, hori gutxi ez eta ezezagunak eta lortzen nekezak. *Kurik*i eman genion zeregina lanok batu eta berriak sortzea eta denak publiko zabalaren esku jartzea izan zen. Hau da, batetik gure iragana aztertu, ezagutzera eman eta urteetara egin zitezkeen ekitaldietarako tresna ontzea. Beraz, Lekeitio 700aren lehen ekintzat hartu daiteke *Kurik* aldizkaria eta honekin batera atera ziren liburuak.

Ondare Batzordeak, lehen batzarra 2012ko maiatzaren 5ean burutu zuenetik, gorabeherak izan ditu ibilbidean, ia hilerio batzartzetik ia ez elkartzeraino, baina bere jarduna ez da eten eta, seguru asko, bere emaitzarik handiena izan den Lekeitioren urteurrenarenari beti eutsi izan dio, ez dugu urteotan ahaztu. Onartuta 700. urteurrena ospatu behar genuela, gorago aipatu ditudan galderak atera genituen mahai gainera, zer egin eta, batez ere, zein helbururekin. Izan ere, ezer bagenuen gogoan zera zen, ospakizun hutsetik haratagoko ekital-

Ondare kontuetan aholkua emateko Lekeitioko Udalak sortu zuen Ondare Batzordeak herriaren 700. urteurrena antolatu du, beti ospakizun hutsetik haratagoko ekitaldiak behar direla kontutan hartuz

Iñaki Goiogana Mendiguren-en erreportaia

Izan Lekeitio

K U R I K
ate zuzetik kusten da... Lekeitio, 2016



‘Kurik’ aldizkaria.

diak antolatu behar genituela, hausnarketarako ere baliatu behar genuela efemeridea alegia. Miren Agur Meabek, ordurako Ondare Batzordera ekarrita genuen idazlea, ondo laburbildu eta idatzita utzi zuen. Herriaren izena, Lekeitio, osatzen duten zortzi hizkiak hartuz, honako ardatzak edo leloak proposatu zizkigun: Lana, Euskara, Kultura eta Kirola, Eskuhartzea, Irekitasuna, Tradizioa, Inklusibitatea eta Oreka. Beste hau ere esan zigun: “urteurrenaren ospakizuneari honako indarguneok batzen saia gaitzke: garapenerako borondatea, sormena eta zabalkuntza kulturala, ingurugiroaren zaintza, berdintasunaren aldeko borroka, bizikidetzaren anitzaren aldeko apustua”. Eta beste hau ere: “Helburua, ehun soziala osatzen duten eragileak –sozialak, ekonomikoak, profesionalak, kulturalak, politikoak...– bitarte direla, herritarrek beren burua aurki dezatela Lekeitioren nortasunaren definizioan”.

Miren Agurren txostenean aipatzen ziren ildoek bidea erakutsi ziguten eta idatziaren gainera hainbat hausnarketa luzatu ziren, esaterako euskara, herriaren gobernu eredua, gizarte aldaketa. Izan ere, eta Euskal Herrian beste leku askotan ikusten den bezala, euskararen erabilera gurean apaltzen doa. Edadean aurrera goazenok Lekeitio euskalduna ezagutu dugu, gaur egun aldiz euskaldunak beraien artean erdaraz dihardutela entzutea ohikoa da gure herrian. Bestalde, Lekeitio hainbat lekutatik etorri zaizkigun herritar berriak ditugu, gure artean eroso bizi behar dutenak,

gurekin nahi eta behar ditugu eta. Bat egin behar dugu denok, hemen jaiook eta urrunetan sortuak, eta batasun hori denon lana da. Hirugarren kezka ere mahai gainean jarri genuen eta da udal bulegoetatik plazara dagoen aldea. Agintzeko ardura hartu duten gizon-emakumeen eta gainerako herritarren arteko aldea txikitu egin behar da, ez da nahikoa lau urtean

behin bozkatzea, parte-hartzea ezinbesteko asignatura dugu, agintariekin eta herritarrok gainditu behar duguna, osterantzean ez gara ondo ibiliko.

Asmoak asmo, batzordean baloratu genuen kontua izan zen, guk gure lanak burutu arren lortzen ez bagenuen lekeitiarrek onartzea alperrik egindako lana izango zela dena. Jendearengana heldu nahi genuen, eta

inondik nahi ez genuena zen okasino politikorako tresna bihurtzea 700.arena. Bigarren hau ekiditea azken udal hauteskundeetan Lekeitio indarra duten Bilduk eta EAJk bakoitzak bere egitasmoetan urteurrena ospatzea sartu zutenean gauzatu zen. Ordurako eta harrezkero ere bai, alderdi bietako ordezkariak parte hartu dute batzordean, bakoitzak bere ekarpenak eginez eta batzordeak ontzen zituen asmoak onartuz. Jendearen erantzuna ekitaldiak gauzatzen hasi ginenean ikusi genuen, erabat aldekoa. Esan daiteke, hasiera hasieratik lekeitiarrek bere egin zutela urteurrenarena eta erabat identifikatu zirela bertan gauzatu denarekin. Batasun hau ikusita akaso, Foru Aldundiak eta Jauralaritzak bere ekarpena egin zuten diru laguntzaren bidez egitasmoa burutzea erraztuz.

Horretan guztian esko lagundu dute herriko talde ezberdinek, izan kultur taldeak, kirola jorratzen dutenak edo bestelakoak, batzordean parte hartu dutenak zein ez. Beraien emaitzak, urtero egiten dituztenak edo berariaz urteurrenerako prestatuak, denak sartu nahi izan dituzte Lekeitio 700 markan, batzordean deseatzek genuen lez.

Mamiak zein eta zelakoa izan behar zuen erabaki ondoren, eskola edo jantzia behar zuela pentsatuz, dena laburtuko zuen leloa asmatu behar zela-eta, Miren Agurrengana jo genuen berriz. Berea da *Izan Lekeitio* leloa, denon iritziz egin asmo genuena ondo baino hobeto islatzen duena. Azken batean batzordearen nahia horixe zen, gure aurrekoak izan zirena erakutsi, gaur garenaz hausnartu eta etorkizuneari ere izatea eta horretaz berba egin. Berba bitan esanda, gure herriaren nortasunaz aritzea.

Oskol edo jantzia, leloaz gain, Miren Pastorrek prestatu zuen identitate bisualarekin eta web orriarekin lortu da, baita Unai Egiak eta Aritz Elordietak konposaturiko eta Miren Agurren hitzekin osaturiko ereserkiarekin eta abestia plazaratzeko egin zen bideo-kliparekin ere. Ikustekoa izan zen Isuntza hondartzara batu zen jendetza bideoan parte hartzeko eta aipatzeko modukoa abestiak izan duen harrera ona. Lekeitio 700erako ondu zen webgunean begiratzen duenak ikusiko du ia 100 ekitaldi burutu direla 2024ko azaroaren hasieratik aur-

historias vascas

tengo hile bereko 3ra bitartean eta ekitaldiok denetariokoak eta hainbat eragilek onduak edo ekarritakoak izan direla, ez Ondare Batzordeak bakarrik prestatuak. Hitzaldiak, mahai-inguruak, musika emanaldiak, zinea, antzerkia, dantzaldiak, bisita gidatuak..., ia denetik eta asko.

ERAKUSKETA ETA HITZALDIK Historia jorratu dugu, hasi *Urdin eta berde* Aitor Iturberen erakusketarekin, non Lekeitioren iraganari errepaso zabala egiten zaion eta urte osoan, elizpean kokatuta, hainbat eta hainbatengana heltzea lortu duen, gaur egunera arteko herrian bizi izan diren gertakari esanguratsuenen berri emanez. Arkeologia eta Prehistoria, izan ere 700. urteurrena ospatu arren Lekeitioren historia milazak urteak lehenago hasi baizen, Asier Gomez, Jose Luis Arribas, Eduardo Berganza eta Ana Martinez Salcedoren eskutik jaso genuen, baita espeleologoek azalpen eta erakusketatik ere, ahaztu barik lehenagotik ere egiten den Arkeologia Egunekei ekitaldietatik. Belen Bengoetxea Euskal Herriko Unibertsitateko Arkeologia irakasleak harresiarri buruz egin duen lanaren zehaztasunak eman zizkigun, besteak beste, esanez Lekeito inguratzen zuen hesia hiribildua baino 100 urte zaharragoa dela. Hiribilduaren sorlegeari buruz, Andres Urrutiak jardun zuen bere hitzaldian eta, ospakizun guztion atariko gisa Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen dituen ondare jardunaldien barruan, 2024ko azaroan, Juan Manuel Gonzalez Cembellinek Maria Diaz Harokoak Lekeitioren sorlegea emateko izan zituen arrazoiak garandu zituen moja dominikarren komentuan eman zuen berbaldian.

Erdi Aroan jarraituz Manu Ugartetxeak Arteitaterrei buruz jardun zuen, lekeitiar familia honetako hainbatek egin zituztenez eta bere garrantziaz. Aitor Lenizek gure herrian ontzigintzak izan duen iragana ekarri zigun gogora eta hainbat azalpen eman bere tesia ontzean luzatuko dizkigunak. Gerra zibilari eta osteari buruz jardun zuten Aitor Miñambres eta Josu Chuecak oraindik gordin dirauten kontuak azalduz. Baita Koldo Plak bere hitzaldian eta Iluna Produccionesek antzezlanean, biak ala biak Iruñeko Ezkaba mendian izan ziren gertakari latzei buruzkoak. Hiri-gintzaz, berriz, gerraostekoaz, Patxi Enzondok egin zigun berba. Historia arloan sartu daitezke baita ere Lekei-



Zutunik: Miren Agur Meabe, Jose P. de la Torre 'Purru', Maite Garamendi, Ibon Noya eta Iñaki Goiogana; makurtuta: Antton De La Lama, Aitor Iturbe eta Koldo Carranza, Ondare Batzordeko kideak.

tioko Udal Artxiboa ezagutzeko Maite Garamendi artxibozainak antolatu eta gidatu dituen bisitak.

Bisita gidatuak beste asko ere izan dira, hala nola, Jesus Mufiizek beheko elizako altxor artistikoak erakusteko gidatu zituenak, herriko mugarrak non dauden jakiteko antolatu zena, Santo Domingo komentua ikusteko eratua, herrian zehar barreiatuta arkitectura eklektikoak utzi zizkigun erai-kin ederrak ezagutzeko prestatu zena, Mendieta ontziola erakusteko baliatu zena eta *Ba al dago zuhaitzik Gernikan?* liburuan aipatzen diren Lekeitioko bazterrak ikusteko egin zena.

Gorago aipatu dudan lez, euskara izan da urte osoan zehar eratu ditugun ekitaldien ardatzetakoa, garrantzikoetakoena esan daitekeena. Gure hizkuntzari bota dizkiogun begiradak punta ezberdinetatik egindakoak izan dira. Andres Urrutiak Resurreccion Maria Azkueren bizitzaren hainbat pasarteren berri eman zigun. Adolfo Arejitak, berriz, gure klasikoak diren Agustin Basterretxea, Kandido Basabe, Juan Bautista Eguzkitza eta Anes Arridaren lanei buruz aritu zen.

Jon Zabalak bere Korrikari buruzko tesia, *Bilkura kolektiboak bizitzaren*



Lekeitio 700erako logoa.

Hasiera hasieratik lekeitiarrek bere egin dute urteurrenarena eta erabat identifikatu dira bertan gauzatu denarekin

erdigunean, garandu zigun. Hizkuntzalariratzen ikuspegitik Gorka eta Arantzazu Elordietak neba-arrebek Lekeitioko euskararen ezaugarriak zeintzuk diren erakutsi zizkiguten. Soziolinguistikatik, berriz, Iñaki Iurrebasok, Olatz Altunak, Jon Sarasuak eta Kike Amonarrirek osatu zizkiguten mahai-ingurua eta hitzaldia. Denboraren berri emateko euskararen aberastasuna Kepa Diegezek erakutsi zigun *Eguraldiaren euskara* hitzaldia-ekin. Euskaraz egiten den sorgintzaz luze jardun dugu urtean zehar. *Hitzen ahairia* eman ziguten Gotzon Baran-

diaran eta Rafa Ruedak; *Tinta ilun-tzean* Karmele Jaio eta Txoli Lauzirikak; *Lekeitio bat komikieraz*, Harkaitz Cano, Unai Iturriaga eta Joseba Larratxek; *Narrazioaren hariak* Jon Alonso, Iñigo Aranberri eta Goizalde Landabasok; *Ni ez naiz Mikel Laboa* liburua aztertu zuten irakurle taldekoek; *Erreka haizea* bertso-saio literarioa Sonia Gonzalez, Ane Labaka eta Aissa Intxaustik; *Ai gure juanteak* ikuskari eszeniko hibridoak Tartearen teatroak. Lekeitio 700 markapean egin da aurtengo *Irailekoa*, Euskaltzaindiak urte batean Lekeitioren eta bestean Itsasun antolatzen duen poesia jaialdia, eta bertan, besteak beste, Eusebio Erkiaga herriko seme idazlea omendu da.

Zinea izan da landu den beste arloa. Honetan Lekeitioko zinezale taldeak herrian urteetan grabatu diren hainbat pelikula berreskuratu ditu eta eman, besteak beste, *Y eligió el infierno*, *La muerte de Mikel*, *Gernika* eta abar. Baita lekeitiarrek, artean Benito Anzolak, super 8an egindakoak ere.

Jabier Kaltzakortak eta Ibon Rodriguezek Lekeitioko tradiziozko kantak hitzaldi musikatua eman ziguten. Aritz Labrador, Pello Leifena eta

EL AUTOR

IÑAKI GOIOGANA MENDIGUREN



Historian lizen-tziatua. Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Agiritegiko teknikaria.

Itziar Larrinaga Buenaventura Zapi-rainez eta bere obra musikalaz jardun ziren. Toti Martinez de Lezea, Gorka Hermosa eta Edurne Zabalok *Mareak* eman ziguten. Lekeitioko Organoaren Lagunak eskutik Aitor Oleak Andre Mari elizako Cavaillé-Coll organoaren garrantziaz hitz egin zigun.

Berdintasuna lantzea garrantzitsua begitandu zitzaigun eta lekua izan du egitarauan, hala sexu eta genero aniztasunaz eta heterosexualitatea iraultzeaz jardun zuen Hiruko Larro-xak eta emakumez Zaprano Guraso Elkartekoek. Jaialdiak ere izan ditugu, Bizkaiko Dantzari Eguna, Erral-doi topaketa, Batelero eguna. Sanpe-droetan ekitaldi instituzionala egin zen eta azaroan, urteurrenari hasiera emateko, aurkezpen ofiziala *Urdin eta berde* erakusketa zabalduz, herriko alkate Ander Aldazabal eta zinegotziek Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko Kultura sailburuak, Ibone Bengoetxea eta Leixuri Arrizabalaga, hurrenez hurren, Lekeitioren zirela.

Kirola izan dugu, umorea, *Ondare* jokoak prestatu dugu, tailerrak eta Arantzazulaben, eta herriko alderdi politikoen laguntzaz goiz osoa eman genuen herria eta agintariak hurbiltzeko moduez hitz egiten. Erdi Aroko azoka ekarri genuen plazara eta baita merchandisinga ere egin ere ehundazak kamiseta salduz. Ekitaldiak Lekeitioko deabruak *Itsas sua* espektakuluarekin eta azaroaren 3an, ilun-tzean, udaletxearen hormaren kontra eman zen bideo-mappingarekin. Askok egin delakoan nago eta hasieran uste genezakeena baino gehiago eta hobeto. Guztia egin da parte hartzaileen prestutasunari esker, herriak bere egin duelako efemeridearen ospakizuna, udal langileek egin duten behar-ari esker eta erakundeek babes osoa eman digutelako. Arrakastaren lekuko dira pasa den barikuan Ondare Batzordean alkateak esandakoa: "Lekeitio 700 egitasmoak herriarrak batzeko tresna ezin hobea izan da". ●

**JAKIN
ESCAPE ROOM**

HISTORIA ZURE ESKUETAN
LA HISTORIA ESTÁ EN TUS MANOS

Aukeratu bi misio hauen artean eta bihur zaitez agente sekretu!! ¡¡Elige entre estas dos misiones y conviértete en agente secreto!!

Gertaera historikoetan oinarritutakoak. Aukeratu: euskaraz edo gaztelaniaz. Basados en hechos históricos. Elige el idioma: euskera o castellano.

NON GAUDE? ¿DÓNDE ESTAMOS?

Tere Verdes Pasabidea z/g. Pasaje Tere Verdes s/n
48007 Bilbo
Sabino Arana Fundazioa

747 488 000
escaperoomjakin.eus

ORDUTEGIA: Asteartetik ostiralera: 10:00etatik 12:00etara eta 17:30tik 20:30ra. Larunbat, igande eta jaiegunetan 11:00etatik 13:30ra eta 17:30tik 20:30ra.

HORARIO: De martes a viernes de 10:00 a 12:00 y de 17:30 a 20:30. Sábados, domingos y festivos de 11:00 a 13:30 y de 17:30 a 20:30.